

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BILARKO UDALA

2017ko aurrekontu orokorraren hasierako onarpena

Udalbatzak, 2016ko azaroaren 21ean egindako ohiko bilkuran, erakunde honen 2017ko ekitaldi ekonomikorako aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematea erabaki zuen.

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak 15. artikuluan xedatutakoarekin, espediente hori jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, epe horretan interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta udalbatzari erreklamazioak aurkezteko.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, aurrekontua behin betiko onartutzat joko da.

Guztiekin jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Bilar, 2016ko azaroaren 21a

Alkatea

GERARDO OLANO MEDRANO